

# XXVI. EMETERIO ARRESE



LITERATUR LEHIAKETA

## XXVI. "EMETERIO ARRESE" LITERATUR LEHIAKETA

Haur eta gazteen artean sormena eta hizkuntzarekiko ardura sustatzeko antolatuta da.

### OINARRIAK

- 1.- Lehiaketa honetan Ibarran bizi diren edo ikasten duten 16 urte arteko haur eta gaztetxo guztiek esku hartu ahal izango dute.
- 2.- Jatorrizko lanak euskaraz aurkeztu behar dira.
- 3.- Lanak banakakoak izango dira.
- 4.- Banakako lanek, gai librekoak, jatorrizkoak, saritu gabeak eta argitaragabeak izan behar dute. Egile bakoitza modalitate batera edo gehiagotara aurkez daiteke eta modalitate bakoitzeko lan bakarria aurkez daiteke.
- 5.- Aurten, beraz, BI modalitate eta hiru maila izango dira:
  1. MAILA: Lehen Hezkuntza 1, 2 eta 3 (6-8 urte)
  2. MAILA: Lehen Hezkuntza 4, 5 eta 6 (9-11 urte)
  3. MAILA: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16 urte)

MODALITATEAK: - Poesia

- Prosa

6. Olerkiei dagokienez, Lehen Hezkuntzako lanek 60 bertso lerro izango dituzte gehienez eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lanek 100. Prosazkoei dagokienez, berriz, Lehen Hezkuntzako lanek 3 orrialdeko hedadura izango dute gehienez eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lanek, berriz, 6 orrialdekoa.
7. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lanak, tarte bikoitzaz eta orrialde batetik soilik mekanografiatuta aurkeztuko dira.

8. Sariak liburuetarako bonoak izango dira, mailaren eta kategoriaren arabera; hala ere, epaimahaiaren proposamenez, interes berezia erakusten duten lanei accesita eman ahal zaie. Bestalde, epaimahaiak erabaki lezake sariren bat hutsik uztea ere.
9. Epaimahaikideak eskarmentu handiko teknikari eta adituak izango dira.
10. Lanek ez dute egilearen sinadurarik, ezizenik edo bestelako seinalerik izan behar. Lan bakoitzari kartazal itxia erantsi behar zaio eta kanpoan lanaren izenburua, maila eta modalitatea ipini behar dira. Kartazalaren barruan egilearen izena eta bi abizenak, jaiotze-data, helbidea, telefonoa eta ikasmaila jarri behar dira.
11. Lanak Ibarako udaletxeko Euskara Zerbitzuan edo Kultura Etxean jasoko dira.
12. Lanak onartzeko azken data:**2016ko azaroaren 7a**.
13. Lehiaketaren sari banaketa **abenduaren 2an** egingo da. Irabazleei alde zuzenetik abisatu behar zaie, bertan izan daitezten.
14. Oinarri hauei buruzko edozein zalantza epaimahaikideek erantzuko dute. Epaimahaikideen erabakia apelaezina izango da.
15. Saritutako lanak Udaleko Euskara Zerbitzuaren esku geratuko dira, eta Udalak argitaratzeko eskubidea izango du, osorik zein atalka, betiere egilea zein den garbi adieraziz.
16. Saritutako lanak posta elektronikoz helarazi beharko zaizkio Euskara Zerbitzuari.
17. Lehiaketara aurkezteak oinarri hauek aurrez zehatz-mehatz onartzea dakar.

# XXVI. EMETERIO ARRESE

*Milla esker*

*Lagundi'ko eskeltzalei.*

*Arera maitelena ojin ditazuen,  
ordainpidebezal nire itzak, oin omu:  
kerbat eskeri zale  
jardun bezin laster  
erazio biketsa  
ur'it zail baronen;  
bielza poz ikaraz,  
binaa nasitub,  
alvira gogoz mozker  
ota ni, ala zer...?  
mentse polit' batzuek  
ortu nai oin  
olotki euek azal  
apuntik oz dagoz;  
itjiz bakar itxusi,  
bina ogor eder,  
berausé ba nik zuec...  
Iuanak, milla esker.*

# LITERATUR LEHIAKETA